



Andoaingo Udala



---

**Andoaingo Udalaren zerbitzuen zabaltzea:  
Hainbat agiri eskuratu edo zenbait eragiketa  
egin ahal izango dira makina baten bitartez**

- **Aipatu makina Ambrosia Olabide eraikinean kokatuko da eta ordainagirien kontsulta eta ordainketaz gain, errolda ere eskuratu ahal izango da**
- **Makina egunero erabili ahal izango, 24 orduetan**
- **Bi astez langile bat egongo da makinaren erabilera egokia erakusten, 10:00etatik 12:00etara**

**Andoainen, 24-01-09.-** Bere zerbitzuak zabaltzen jarraitzen du Andoaingo Udalak; oraingo honetan, Ambrosia Olabide eraikinean (Gizarte Zerbitzuen saila kokatzen den eraikinean) ezarri den makina baten bitartez, gure egunerokoan baliagarri izan daitezkeen zenbait agiri eskuratu edo hainbat eragiketa egin ahal izango ditu herritarrak.

Agiri hauek eskuratzeko edo eragiketa horiek egiteko, nahikoa izango da NAN zenbakia edo B@kQ ziurtagiria.

Bertan ondorengo dokumentuak eskuratu ahal izango dira:

- Ordainagirien kontsulta eta inprimaketa
- Ordaindu gabe dauden ordainagirien kontsulta eta inprimaketa
- Errolda ziurtagiriak
- Ordainagirien ordainketa (banketxe bakoitzaren arabera)
- Sarrera erregistroa egiteko aukera

Erabilera erraza eta intuitiboa du makinak; edonola, bi astez, langile bat gongo da astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 12:00etara, makinaren erabilera egokia erakusten.

Gainerakoan, egunero erabili ahal izango da makina, eguneko 24 orduetan.